

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak, beste edozein bezala, bere funtsezko aktibitate eta prozesuak ditu. Huk zehaztea ezinbestekoa da enpresaren funtzionamendu egokia ziurtatu ahal izateko eta modu honetan gure balizko bezeroen esperientzia gurekin ahalik eta hoberena bihurtu ahal izateko. Gainera, komeni da hauek duten garrantziaren arabera hierarkizatzea, izan ere, jakin behar dugu zer prozesu edo aktibitatei eskaini beharko diogun denbora gehien eta zeini gutxien.

Alde batetik, garrantzi eta atentzio gehien jasoko duen prozesua, gure aplikazioaren garapen eta funtzionamendu egokia izango da, hau da gure proiektuaren zutabe sendoenetako bat. Hau ziurtatu ahal izateko, tekniko baten laguntzaz, aplikazioa garatuko dugu, app-aren tamaina ahalik eta txikiena bihurtuz, mugikorrean espazio gutxi duten erabiltzaileek arazorik gabe deskargatu dezaten. Honetaz gain, funtzionamendu egokia eta erabilgarritasun erraza ziurtatuko ditugu, izan ere, aplikazioaren erabilgarritasun erraza bada, bi gauza lortuko ditugu: bezeroen esperientzi ona gurekin eta zerbitzuaren efektibitatea. Hau dena lortzeko, ezinbestekoa izango da empresan, trebetasun handiko ekipo tekniko bat edukitzea, hauek, software aktualizazioen bitartez, aplikazioa berritzeaz, mantentzeaz, hobetzeaz, eta aplikazioaren arazo teknikoek irtenbide eraginkor bat aurkitzeaz arduratuko dira. Hau, garrantzi handiko alderdi bat da gure empresan, aplikazioaren garapen eta mantenimendu egokirik gabe, ezingo genukeelako gure parking zerbitzua digitalki eskaini.

Bestalde, bezeroen arazoei irtenbide egokia aurkitzea hurrengo lehentasuna da. Arazo hauen ebazpena, balizko bezeroen esperientzian dago zuzenduta, ez hainbeste aplikazioaren barnean egon daitezkeen arazo teknikoekin, izan ere, alderdi hau, garrantzi gehien duen blokean aipatu dugu dagoeneko eta ekipo teknikoaren ardura da. Alderdi honetara zuzenduta, beste langile talde bat edukiko dugu, bezeroen arreta. Talde hau, gure aplikazioaren barnean aurkitu daiteke, eta telefono dei bidez, korreoz, edota lan orduetan aktibo edukiko dugun LIVE chat- a bidez kontaktatu daiteke. Edozein motatako arazoak konpontzeko prest egongo dira: erreserbatu duten aparkaleku plazaren arazoak, diru arazoak, suskripzio eragozpenak, aparkalekuen sensoreekin, piboteekin, plakekin, edo bestelako objetuekin eduki ditzaketen ezustekoak, aplikazio barneko erabilgarritasun arazoak, etab.

Azkenik, hirugarrena, azpiegituren prestakuntza da. Aparkaleku plazen objektu guztien eraikuntzaz arduratuko gara, pibote, sentsore, plakak... Hau, ezinbestekoa izango da, eta horretarako, kontu hauetan lan egiten duen enpresa bat kontratatuko dugu. Baina hau, aurreko biek alderatuta garrantzi gutxigoko alderdia izango da.